

## ADMINISTRAZIOKO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA

### ARETXABALETAKO ZARAIA ZINE ARETOAN FILM KOMERTZIALAK ETA ZINE KLUBA EMATEKO ETA ARKUPE KULTUR ETXEAN ANTOLATZEN DIREN EKITALDIETARAKO LAN TEKNIKOA, BATEZ ERE SOINUA, KONTRATATZEKO

#### LEHENENGO KLAUSULA. Kontratuaren helburua eta kalifikazioa

Kontratuaren helburua da Aretxabaletako Zaraia zine aretoan filma komertzialak eta zine kluba ematea, eta Arkupe kultur etxean antolatzen diren ekitaldietarako lan teknikoa, batez ere soinua kontratatzea.

Zehazten den kontratuak, zerbitzuetako administrazio kontratuaren kalifikazioa du, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 19.b) artikulua ezartzen duen bezala.

#### BIGARREN KLAUSULA. Hautaketa eta esleipen prozedura.

Kontratua, prozedura ireki bidez esleituko da, eta esleipen horretara, interesa duen edozein enpresarik aurkeztu ahal izango du proposamena, kontratuaren terminoen negoziazio oro baztertuta geratuz, Azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 157 artikuluaekin bat etorritik.

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza ekonomikorik onena zehazteko, hainbat irizpide edukiko dira kontuan. Irizpide horiek kontratuaren helburuari zuzenean atxikitakoak izango dira, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 150.1. artikulua ezartzen duen bezala eta Plegu honetako bederatzigarren klausularekin bat etorritik.

#### HIRUGARREN KLAUSULA. Kontratugilearen profila

Gardentasuna eta bere kontratu-jarduerari buruzko informazioa jendearen eskura egotea ziurtatu ahal izateko, eta beste publizitate bitarteko batzuk erabiltzearen kaltetan gabe, Udal honek Kontratugilearen Profila dauka, zeinetara, ondorengo web orrian arautzen diren zehaztapenen arabera sartu ahal izango den: [www.aretxabaleta.eus](http://www.aretxabaleta.eus).

#### LAUGARREN KLAUSULA. Kontratuaren zenbatekoa

Kontratuaren zenbatekoa 181.500 eurokoa, izango da. Adierazitako zenbatekoari, BEZari dagokion 35.115 euro balioa erantsiko zaio. Beraz zenbatekoa guztira 218.615 euro izango da.

Diru kopuru hori, egungo Udal aurrekontuetan horretarako aurreikusita dagoen partidaren kontura ordainduko da; diru kopuru hori ordaintzeko Udalak nahikoa kreditu onartuta dauka, kontratu hori finantzatzen utziko duten ekarpenen erabilgarritasuna guztiz frogatuta egonik.

#### BOSGARREN KLAUSULA. Ordainketak

Emandako zerbitzuen faktura dagokion administrazio erregistroan aurkeztu beharko du kontratistak, honek kontabilitate publikoan eskumenak dituen organora, hau da, Udal kontuhartzaitzara bideratu dezan. Fakturan kontratazio organoa eta hartzailea jaso beharko dira.

Ordainketa SPKLTBko 218.4 artikuluan eta seigarren xedapen iragankorrean xedatutako epeetan egingo da, aseguru-denboraldi bakoitzaren hasieran.

### SEIGARREN KLAUSULA. Kontratuaren iraupena

Kontratuaren iraupena hiru urtekoa izango da, 2017ko otsailaren 1etik hasi eta 2020ko urtarrilaren 31 arte.

### ZAZPIGARREN KLAUSULA. Kontratatzeko gaitasuna egiaztatzea.

Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna izan eta kontratatzeko inolako debekurik ez duten, eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatuko duten pertsona fisiko zein juridikoek, espainolek nahiz atzerritarrek, aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak.

1. Enpresarien jarduteko gaitasuna ondorengo eran egiaztatuko da:

a) Enpresaria Pertsona juridikoa bada: eskritura, edo eratze-agiriaren, estatutuen edo fundazio egintzaren bitartez, non bere jarduera arautzen duten arauak jasoko diren, pertsona juridikoaren arabera, bakoitzari dagokion Erregistro ofizialean inskribatuak.

b) Europako Batasuneko kideak diren Estatuetak naziotasuna duten, enpresari ez espainolen jarduteko gaitasuna, kokatuta dauden Estatuaren legediarekin bat etorritako dagokion erregistroan duten inskribapenaren bidez frogatuko da, edo bestela, erregelamenduz ezarritako terminoetan egindako zinpeko aitortpena edo ziurtagiria aurkeztuz, aplikaziozko xedapen komunitarioekin bat etorrituz.

c) Gainontzeko atzerriko enpresariak, dagokion estatuan Espainiak duen Misio Diplomatiko Iraunkorraren, edo enpresaren egoitza kokatuta egongo den lurralde eremuko Kontsul Bulegoaren txostena erabiliz frogatuko dute beren jarduteko gaitasuna.

2. Enpresariak, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan ezarritako Kontratatzeko inolako debekurik ez dutela frogatu ahal izango dute:

a) Egiaztatze hori, lekukotza judizialaren bidez edo administrazio ziurtagiriaren bidez egin ahal izango da, eta kasua bada eta agiri hori agintaritzaren eskudunak eman ezin duenean, administrazio agintaritzaren, notario baten edo gaitutako erakunde profesional baten aurrean egindako zinpeko aitortpenaren bidez ordezkatu ahal izango da.

b) Europako Batasuneko kide diren Estatuetak enpresak direnean, eta aukera hori dagokion Estatuaren legerian aurreikusita badago, agintari judizial baten aurrean egindako aitortpen baten bitartez ordezkatu ahal izango da.

3. Enpresariaren kaudimena:

**3.1 Enpresariaren kaudimen Ekonomikoa eta Finantzarioa, ondoren adieraziko diren bitarteko baten edo batzuen bidez egiaztatu ahal izango da::**

a) Merkataritza Erregistroan edo dagokion Erregistro Ofizialean aurkeztutako urteko kontuen bitartez. Kontuak Erregistro Ofizialetan aurkeztera behartuak ez dauden enpresariak, behar bezala legezkatuta egongo diren kontabilitate liburuak aurkeztu ahal izango dituzte, egiaztateta alternatibo bezala.

b) Negozioen bolumen globalari buruzko aitortpena edo, hala badagokio, kontratuaren helburuari dagokion jardueren eremuan, negozioen bolumenari buruzkoa, beti ere enpresaren sortze dataren edo jardueren hasieraren arabera erabilgarri diren azken hiru ekitaldikoa, beti ere negozio bolumen horren erreferentziak dituen neurrian. .

3.2. Zerbitzu-kontratuetan, enpresarien kaudimen teknikoa, ondorengo bitarteko baten edo batzuen bidez egiaztatuko da:

a) Azken hiru urteotan egindako lan edo zerbitzu nagusien zerrenda, adieraziz, haien zenbatekoa, noiz eginak izan diren eta hartzailea publikoa edo pribatua izan den. Egindako lan edo zerbitzuak, gaitutako organoak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bitartez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea denean. Hartzailea subjektu pribatua denean, berak egindako ziurtagiriaren bitartez edo, ziurtagiri hori ezean, enpresariaren aitopenearen bitartez. Edozein erataraziurtagiri horiek kontratazio organoaren esku utziko ditu, gaitutako organoak, zuzen zuzenean.

b) Enpresariaren eta enpresako zuzendaritza osatzen duten langileen titulazio akademikoak eta profesionalak eta bereziki, kontratuaren gauzatzeari arduratuko diren langileenak.

### **ZORTZIGARREN KLAUSULA. Hizkuntza betebeharrak**

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan, eta Euskararen Erabilera Planaren (2013-2017) baitan Aretxabaletako Udalak onartutako Hizkuntza Irizpideetan.

Aipaturiko Dekretuak administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu 18. artikuluan, eta horien artean ondorengo agertzen da: "18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak berma daitezen."

Horrenbestez, zerbitzu hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira, eta kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Horregatik, zerbitzua ematerakoan hizkuntza biak erabiliko dira ahozko zein idatzizko komunikazioetarako, lehentasuna euskarari emanez.

Hizkuntza gaitasunei dagokienez, udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte kontratatutako enpresako langileek (zehaztasunak, baldintza teknikoetan).

Era berean, enpresak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak udalaren lan hizkuntzaren arabera izango dira.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko (SPKLTB) 52 eta 222 artikulua jarraiki, zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

Klausula honetan aurreikusitako hizkuntza-baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

### **BEDERATZIGARREN KLAUSULA. Eskaintzak eta Administrazio Agiriak aurkeztea.**

Eskaintzak, Udaletxean aurkeztuko dira (Otalora kalea 1) jendaurreko ordutegian, lizitazioa iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratu egilearen perfilean publikatzen den hurrengo egunetik hasi eta 15 eguneko epean.

Proposamenak, postaz, telefaxeaz, edo bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiliz aurkeztu ahal izango dira, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarrita dauden lekuetako edozeinetan.

Eskaintzak postaz bidaltzen direnean enpresariak, justifikatu egin beharko du Postan bidalketa noiz egin duen, eta kontratazio organoari egun berean, eskaintza bidalia izan dela jakinarazi, telex, fax

edo telegrama bitartez, bertan, espedientearen zenbakia, kontratuaren helburuaren titulu osoa eta hautagaiaren izena adieraziz.

Adierazitako telefax, fax edo telegrama hartu izanaren frogagiria, udal Idazkariak egingo duen eginbidearen bitartez egingo da. Bi betekizun horiek betetzen ez badira, proposamena ez da onartuko, kontratazio organoak, lizitazio iragarkian adierazitako epea baino beranduago, hau da, jarritako eguna eta ordua baino beranduago jasotzen badu. Edozein eratar, jarritako eguna pasa eta hamar egunera dokumentazioa oraindik ere jaso gabe badago, ez da onartua izango.

Erabili ahal diren bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoek, gainera, 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren Hamaseigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

Lizitatuak bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean ezingo du inolako eskaintzarik sinatu, beste batzuekin batera Aldi Baterako Enpresa Batasunean, baldin eta bakarka egin badu, ez eta Aldi Baterako bat baino Enpresa gehiagotan egon. Arau hauek hausten baditu, ez zaio berak sinatutako inolako eskaintzarik onartuko.

Proposamena aurkezteak, Plegu honetako klausulak bete betean eta baldintzarik gabe onartzea dakarkio enpresariari.

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak, bi kartazal itxietan aurkeztuko dira. Kartazal horiek lizitatuak sinatuta egongo dira eta bertan egoitza adierazi beharko da jakinarazpenak egin ahal izateko; baita kartazalaren izenburua eta ondorengo lema ere: "Zaraia zine aretoan filmak emateko kontratazioa lizitatzeko proposamena" Kartazalaren izena ondorengo da:

- **A kartazala: Administrazio-Agiriak**
- **B Kartazala: Proposamen ekonomikoa eta gainontzeko Agiriak.**
- **C Kartazala: Balio Judiziopeko ponderazioa behar duen dokumentazioa.**

Kartazal bakoitzean aurkeztu beharreko agiriak jatorrizkoak izan beharko dira, edo kopia kautotutak, indarrean dagoen Legeriarekin bat etorritik.

Kartazal bakoitzaren barruan ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira eta beren zerrenda zenbakitua:

#### **A kartazala:**

#### **ADMINISTRAZIO-AGIRIAK**

##### **a) Enpresariaren nortasun juridikoa egiaztatuko duten agiriak.**

##### **b) Ordezkatza egiaztatuko duten agiriak**

- Beste baten izenean jardun edo eskaintzak sinatzen dutenek, ordezkatza eskumenaren notario-kopia aurkeztu beharko dute

Lizitatuak pertsona juridikoa bada, ahalorde hori Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko da, legez hala eskatu ahal denean.

- Era berean, ordezkatza ondorioetarako eskumen askietsiaren jabe den pertsonak, bere Nortasun Agiriaren, administrazio konpultsa duen fotokopia edo notario-testigantza

##### **c) Zinpeko berariazko aitortpena, 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan kontratatzekeo zehaztutako debekurik ez daukala agertuz.**

Aitortpen horretan espresuki adieraziko da, indarrean dauden xedapenek xedatutako Zerga-betebeharrak eta Gizarte-Segurantzarekikoak kitatuta dauzkala, beti ere, esleipena egingo zaion enpresariak, betekizun horren frogagiria behin betiko esleipena egin aurretik aurkeztearen kaltetan gabe.

d) Kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionalaren baldintzak betetzen dituela egiaztatuko duten agiriak.

e) Posta elektronikoa, jakinarazpenak egin ahal izateko.

e) Kontratuaren ondorioz sor litezkeen arazo zuzenak edo zeharkakoak konpondu ahal izateko Atzerritar enpresek Espainiako Epaitegi eta Auzitegien mendekotasuna onartuko duten aitortpena aurkeztu beharko dute, beraien nazioko epaitegiei uko egiten dietela garbi adieraziz

## B KARTAZALA:

### Proposamen Ekonomikoa eta gainontzeko agiriak.

#### a) Proposamen ekonomikoa.

Ondorengo eredu jarraituz aurkeztuko da:

..... jaunak/andreak, jakinarazpenak egin ahal izateko .....n  
 ..... kalendar ( e ) an bizi denak (NAN zk ..... ) IFK ..... zenbakia duen  
 ..... erakundearen izenean, ... ( r ) en ..... ( e ) ko ..... zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratugilearen perfilean iragarritako, Zeraia Zine aretoan film komertzialak eta zine kluba emateko eta Arkupe kultur etxean antolatzen diren ekitaldietarako lan teknikoa, batez ere soinua kontratatzeko espedienteaz jakitun izanik zeina prozedura ireki bitartez egingo den (esleipenerako hainbat irizpide erabiliko dira eta eskaintza ekonomiko onenari esleitu zaio), adierazten dut kontratuaren oinarri diren Pleguak ezagutzen ditudala eta oso osorik onartzen ditudala, eta konpromisoa hartzen dudala kontratuaren helburua ..... eurotan egiteko. Horri BEZaren ..... euroko kopurua erantsiko zaio.

..... n 20\_\_ ( e ) ko ..... ren ..... ( e ) an

Lizitatuzailearen sinadura,

Sinatuta: \_\_\_\_\_ ».

## C KARTAZALA:

### Balio judizioen bidez ponderatuko den dokumentazioa

Honako agiriak aurkeztu behar dira:

- a) Pelikula berrien edo nobedadeen eskaintza.
- b) Pelikulen emanaldiak gehitzeko aukera
- c) Beste onura batzuk

### HAMARGARREN KLAUSULA. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.

Kontratua orohar, onuragarriena den eskaintzari adjudikatuko zaio. Horretarako, ondoren azaltzen diren baremoak aplikatuko dira, beti ere ziurtatuak izan badira.

#### 1. Eskaintza ekonomikoa: 55 punturekin.

Kontratuaren prezio osoaren gaineko, beheranzko zenbatekorik handiena, BEZ barne, 55 punturekin baloratuko da; gainontzeko eskaintzei proportzionalki egokitutako puntuazioa emango zaie, hirukote erregela sinplearen prozedura erabiliz.

#### 2. Pelikula berrien edo nobedadeen eskaintza: 20 puntu.

**3. Pelikulen emanaldiak gehitzeko aukera: 10 puntu****4. Beste onura batzuk: 15 puntu.**

Baloratuko diren onurak honako hauek dira:

Hilero esleipendunak egiten diren lanaren zuriketa; (ikusle kopurua, umeena, lortutako sarrerak...); udalak eskatutako filmak eskaintzea eta euskaraz filmak emateko aukera.

### HAMAIKAGARREN KLAUSULA. Kontratazio Mahaia

Udalbatza osatzen duen kide bat edo bertako funtzionario bat izango da Kontratazio Mahaiaren buru, eta Idazkari lanetan Udalbatzaren Idazkariak jardungo du, beti ere Sektore Publikoaren Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21.2 artikuluekin zerikusia duen, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 10. puntuaren ezarritakoarekin bat etorriz. Mahaia, gutxienez lau bokalek osatuko dute; horien artean egongo da Idazkaria edo bere ordeaz, aholkularitza juridikoaren funtzioa esleitura duen organoaren titularra, eta Kontu hartzailea; baita Kontratazio organoak, Udalbatzaren zerbitzura dagoen karrerako funtzionarioen edo lan itunpeko langileen artean edota Udalbatzaren hautetsien artean izendatuko dituen beste guztiak ere.

Kontratazio Mahai adieraziko den moduan osatuko da:

- Mahaiaren presidentea: alkatea, Unai Elkorro Oianguren.
- Bokala (Udalbatzaren Idazkaria) Fco. Javier Mendizabal Garate.
- Bokala (Udalbatzaren Kontu hartzailea) Juan Antonio Martinez de Aguirre Etxabe.
- Bokala, Jose Miguel Uribarren Azpiazu.
- Bokala, Inma Miguel Quintero.
- Mahaiko idazkaria: Ana Isabel Diez Ugarte.

### HAMABIGARREN KLAUSULA. Administrazioaren eskumena

Kontratazio organoak, ondorengo eskumenak ditu, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 210 artikuluekin bat etorriz:

- a) Kontratua interpretatzekoa.
- b) Bere betetzeak sortarazten dituen zalantzak argitu eta konpontzekoa.
- c) Interes publikoko arazoak tarteko, kontratua aldatzekoa.
- d) Kontratua bertan behera uztea erabakitzea, eta egindakoaren ondorioak zehaztea.

— Kontratistak, azpi-kontratazio suposamenduetarako, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 211 artikuluan aurreikusitako betekizunak bete beharko ditu.

### HAMAIHIRUGARREN KLAUSULA. Proposamenak irekitzea.

Kontratazio Mahaia proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo astelehenean osatuko da, eguerdiko 12:00etan. "A" kartazala irekiko du eta bertan dagoen administrazio dokumentazioa kalifikatuko du.

Beharrezkoa balitz, Mahaiak, hiru eguneko epea emango du, gehienez ere, lizitatuzaileak aurkeztutako agirietan antzemandako, konpon daitezkeen akats edo hutsegiteak zuzentzeko.

Jarraian, "C" kartalazala, beren ponderazio balio judizioaren pean duten irizpideak jasoko dituena ireki da eta aztertuko da.

Kontratazio mahaia berriro elkartu ondoren, balio judiziopeko irizpideei atxikitako ponderazioaren berri emango da. Jarraian "B" kartazala irekiko da. Udalak bere web orrian argitaratuko du kartazal hori irekiko den eguna eta ordua.

Balio Judiziopeko Ponderazioa behar duten irizpideen balorazioa ("C" kartazala) eta ponderazio automatikoa duten irizpideena ikusirik ("B" kartazala) kontratazio mahaia kontratuaren esleipenduna proposatuko du.

#### **HAMALAU GARREN KLAUSULA. Dokumentazioa eskatzea.**

Kontratazio organoak, ekonomikoki eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailari eskatuko dio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasitako hamar eguneko epean, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kitatuta dituela egiaztatuko duten frogagiriak aurkez ditzala, edo kontratazio organoari baimena eman diezaiola, eskatutakoa egiaztatuko duten agiriak zuzenean eskatzeko. Baita Kontratu gauzatzeko erabiliko dituen bitartekoak egiazki dituela egiaztatuko duten frogagiriak, beti ere azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 64.2 artikuluekin bat etorri eta egoki den behin betiko bermea eratu izanarenak.

#### **HAMABOS GARREN KLAUSULA. Behin-betiko bermea:**

Ekonomikoki onena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzailak, esleipenaren zenbatekoaren %5aren bermea ordaindu duela egiaztatu beharko du, Balio erantsiaren Zerga kenduta.

Berme hori ondorengo eratako batean ordaindu ahal izango da

a) Dirutan edota Zor Publikoko baloreetan ordaindu ahal izango da, kasu bakoitzean, Lege honen garapen arauetan ezarritako baldintzak betez. Dirua, eta jasotako baloreen ibilgeketaren ziurtagiriak Gordailuen Kutxa Orokorrean utziko dira, edo, Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzen barruan dauden beren sukurtsaletan, Autonomia Erkidegoetako Kutxetan edo establezimendu publiko baliokideetan, edo Lege honen garapen arauak ezarriko duten era eta baldintzetan, ondorioak izan behar dituzten Tokiko Erakunde Kontratugileetan.

b) Espainian jarduteko baimena duten, banku, kutxa, kreditu kooperatiba, kreditu finantza establezimenduak eta elkarrekiko bermeak elkarteren batek, Lege honen garapen arauak ezarriko dituzten era eta baldintzetan emandako abalaren bitartez; abal hori aurreko a) letran adierazi diren establezimenduetan utzi beharko da.

Lege honen garapen arauak ezarriko dituzten era eta baldintzetan, sektorean jarduteko baimena duen aseguru etxe batekin egindako, Kauzio aseguru-kontratuaren bitartez. Aseguruaren ziurtagiria, aurreko a) letran adierazi diren establezimenduetan utzi beharko da.

Bermea ez da itzuli edo bertan behera utziko, berme epea iraungi eta kontratua behar bezala bete arte.

Berme honek, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 100 artikuluan dauden kontzeptuei erantzun die.

#### **HAMASEI GARREN KLAUSULA. KONTRATUA ESLEITZEA**

Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio organoak kontratua esleitu egin beharko du, dokumentazioa jaso eta hurrengo bost lanegunetako epean.

Ezingo da lizitazio bat hutsik utzi, Plegu honetan aipatzen diren irizpideekin bat etorri onargarria den eskaintza edo proposamenik badago.

Esleipena arrazoitu egingo da, hautagai edo lizitatzailari jakinaraziko zaie eta horrekin batera, kontratu egilearen perfilean argitaratuko da.

Jakinarazpenak edozein kasutan, kanpoan geratu den lizitzaileari edo baztertutako hautagaiari esleipen erabakiaren aurka, arrazoitutako errekurtsoa tartekatzen utziko dion beharrezko informazioa edukiko du. Eta bereziki ondorengoak azalduko ditu:

- Baztertutako hautagaiei dagokienez, beren hautagaitza baztertu izanaren arrazoiak azalpen laburra.
- Esleipen prozeduratik kanpo geratu diren lizitzaileei dagokienez, beren eskaintza ez onartu izanaren arrazoiak, era laburrean.
- Edozein kasutan, esleipendunaren izena, hautatua izan den esleipenlariaren proposamenak dituen, hautaketarako erabakigarriak izan diren ezaugarriak eta abantailak, eskaintzak onartu zaizkien gainontzeko lizitzaileen eskaintzek ez zituztenak.
- Jakinarazpenean eta kontratatzailearen perfilean, haren formalizazioa noiz egingo den adieraziko da.

#### **HAMAZAZPIGARREN KLAUSULA. Kontratua formalizatzea.**

Kontratua administrazio agirian formalizatuko da, behin betiko esleipena jakinarazten den egunetik hasitako hamar laneguneko epean. Agiri hori nahikoa izango da edozein erregistro publikoetara sartzeko.

Kontratistak, kontratua eskritura publikoan jaso dadila eskatu ahal izango du, sortutako gastuak bere kontura izanik.

#### **HAMAZORTZIGARREN KLAUSULA. Esleipendunaren eskubideak eta betebeharrak.**

Kontratua, bere klausuletan eta pleguetan ezarritakoaren arabera gauzatuko da eta haren interpretaziorako, kontratazio organoak kontratistari emandako aginduekin bat etorritik.

Kontratista, aurrera eramango dituen lanen, prestazioen eta egindako zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule izango da; baita, kontratuaren gauzatzean egindako hutsegite, akats, metodo ezegoki edo ondorio okerrekin Administrazioari edo beste hirugarren batzuei eragiten dizkieten ondorioen erantzule ere.

Gainera ondorengo obligazio zehatzak izango ditu kontratistak:

— Kontratistak kontratua behar bezala gauzatzeko giza baliabideak eta materialak jarri beharko ditu (azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 64.2 artikulua).

Kontratistari eskatu beharreko gastuak. Kontratistaren kontura izango dira, lizitazioaren eta esleipenaren iragarkien edo iragarkien gastuak eta zergak, eta indarrean dauden xedapenen arabera aplikaziozkoak diren beste guztiak, haiek adierazitako eran eta zenbatekoagatik.

— Kontratistak, azpi-kontratazio suposamenduetarako, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 227 artikuluan aurreikusitako betekizunak bete beharko ditu.

Kontratuak bete egin beharko ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden legezko, erregelamenduko eta hitzarmenezko xedapenak.

Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 5.2 artikulua betez, lizitzaileek adierazi beharko dute esleipena jaso ezkererako langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa eta, halaber, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia eman behar da, behin kontratua esleitu eta gero.

Esleipendunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.

#### **HEMERETZIGARREN KLAUSULA. Bermealdia:**

Kontratuaren objektuak, urte beteko berme epea izango du, hartua izan denetik edo zerbitzua edo lanaren aurrean adostasuna adierazten denetik hasita. Epe horretan Administrazioak, egindako lana edo zerbitzua, bera gauzatzeko ezarritako betekizunekin eta Plegu honetan eta Baldintza Teknikoek Pleguetan xedatutakoarekin bat datorrela egiaztatu ahal izango du Berme epea igaro eta egindako lanen edo zerbitzuen aurrean zalantzarik ez bada, amaitutzat emango da kontratistaren erantzukizuna.

Berme epean, egindako zerbitzu edo lanetan bizio edo akatsik antzemango balitz, kontratazio organoak haien konponketa kontratistari erreklamatzeko eskubidea izango du.

#### **HOGEIGARREN KLAUSULA. Prezioen berrikusketa:**

Kontratu honen prezioak berraztertu ahal izango dira, sinatu zenetik bi urte igarotakoan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 89tik 94 arteko artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Berraztertzea dagokion edo ez, eta kasu horretan aplikatu daitezkeen prozedura eta indize espezifikoak, arauz onartutakoaren artean kontratu honetako kostuen eboluzioa egokien islatzen dutenak izango dira.

Prezioen berrazterketa onartzea dagokion unean berrazterketa hori egiteko dauden kasuak onartu barik egonez gero, ez dira prezioak berrikusiko.

#### **HOGEITABATGARREN KLAUSULA. KONTRATUA BURUTZEA**

Kontratua Baldintza Plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritakoaren arabera gauzatu da eta haren interpretaziorako, kontratazio organoak kontratistari emandako aginduekin bat etorri.

#### **HOGEITABIGARREN KLAUSULA. Ez betetzeagatiko zigorrak.**

—Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa igarotakoan burutu gabe badu kontratua, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi edo lanak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko, SPKLen 212.4 artikuluan aurreikusitako zigorrak ezartzea. Kontratuaren prezioaren 1000 euroko, 0,20 euro.

Atzerapenagatiko zigorraren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo aurrez ezarritako zigorrak ezartzea.

Zigorrak, kontratazio organoaren erabakiz ezarriko dira; erabaki hori, kontratuaren arduradunaren -balego- proposamenaz hartuko da, eta berehala betetzekoa izango da. Kontratistari, guztizko ordainketa edo zatikako ordainketa kontzeptuan ordaindu beharreko kopurutik kenduta gauzatu dira edo, ziurtagiri horietatik kentzea posible ez bada, bere kasuan ordainduta duen bermetik kenduta.

#### **HOGEITAHIRUGARREN KLAUSULA. Kontratua Bertan behera uztea**

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak, Plegu honetan eta azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223 eta 237 artikuluetan zehazten direnak izango dira.

Kontratua, kontratistaren erruz bertan behera geratzen bada, behin betiko bermea bahitu egingo da, Administrazioari sortutako, bermearen zenbatekoa baino handiagoak diren kalte-ordainak ordaintzea kaltetu gabe.

**HOGEITALAUGARREN KLAUSULA Kontratuaren Erregimen Juridikoa**

Plegu edo Orri hauen arabera egindako kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta bere gauzatze, esleipen, ondorio eta iraungitzeari dagokionez Pleguetan ezarritakoak arautuko du eta kontratuan bertan zehaztu ez den guztiari dagokionez, ondoko arautegia aplikatuko da: azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina, Sektore Publikoaren Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena, eta indarrean badago 817/2009 ED indarrean sartu ondoren; osagarri gisa, zuzenbide administrazioiko gainontzeko arauak aplikatuko dira eta haiek ezean zuzenbide pribatuko arauak.

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioiko auzigaietarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 21.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Aretxabaletan 20\_\_\_(e)ko .....ren..... ( e) an

ALKATEA

Sinatuta: : \_\_\_\_\_

## **PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA**

### ZINEMA KOMERTZIALA ETA ZINE KLUBA

1.- Filma berriak izan behar dira eta aurreko hilabetean, hilaren 15a baino lehenago tituluak eta laburpena aurkeztu beharko du kultura sailean. Esleipendunak bere kontura instalatuko du filmak emateko ekipamendu digitala.

2.- Filma komertzialak izango dira astero.

- Ostirala, zapatua, domeka eta astelehenetan nagusientzat filma bat
- Zapatu eta domeketan hau zinema
- Ostegunetan zine klub

Gutxienez 3 filma, 7 proiektzio.

3.- Udako zinemaldia uztailean, abuztuan eta irailean izango da eta 4 filma izango dira, 12 proiektzioetan.

4.- Sarrera nagusientzat 4 euro.

Haur zinema zapatuan eta asteleheneko zinema 2 euro.

Eta domekako haur zinema 3 euro.

Sarreren bitartez lortutako diru guztia kontratua izaten den enpresarentzat izango da.

Astero, proiektatutako filmen aitorpena bidaliko da Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutura, takilak kontrolatzeko atalera.

Takilako diru-sarrerak enpresarentzako.

Zine proiektzioaz arduratzen den enpresak jarriko ditu aste bukaera eta jai egunetan lana egingo duten langileak: takilako eta zine proiektzioaz arduratuko dena.

### ARKUPE KULTUR ETXEKO LAN TEKNIKOA

#### **6. AURREKARIAK**

Aretxabaletako Udalak enpresa baten gain utzi nahi du Arkupe kultur etxeke lan teknikoak. Besteen artean, Arkupe kultur etxean Zaraia aretoa dago.

- Zaraia aretoak 100 metro karratu inguru du, eta 99 besaulkirentzako tokia eta bertan antzerkiak, hitzaldiak, proiektzioak.... egiten dira astean zehar, aste bukaeretan eta jai egunetan ere.

#### **7. KONTRATUAREN HELBURUA**

Kontratuaren helburua da Arkupe kultur etxean egiten diren ekintzak burutzeko lan teknikoak egitea. Zenbait kasutan soinu arloko lan teknikoak kalean egin beharko dira.

Kontratuak hiru urteko iraupena izango du.

#### **8. ESLEIPENDUNAK EGIN BEHARREKO LANAREN GARAPENA ETA EDUKIA**

Esleipendunak eginkizun hauek izango ditu:

Esleipendunak harreman zuzena izango du Udalarekin eta horretarako beharrezkoak izango diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu.

- Arkupe kultur etxeke Zaraia aretoa kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea.
- Kultur Teknikariarekin hitzartutako urteko jarduera programa abiarazteko laguntza teknikoak ematea.

Eginkizun horiek gauzatzeko, honako hau da Udalak jadanik ezarritako egitaraua:

Ekitaldi aretoan: Musika eskolaren, Abesbatzaren eta Akordeoi orkestraren musika emanaldiak; antzerkiak, hitzaldiak, entzun-ikustekoak.....Gutxienez hogeit bat entzunaldi izango dira.

## **9. ESLEIPENDUNAREN ESKU IPINITAKO IBILGETUARI BURUZKO BALDINTZAK**

Esleipendunari dagozkio:

Arkupe kultur etxearen funtzionamendu onari datzekion zeregin guztiak eta bakoitza egitea.

- Zeraia Aretoa irekitzea eta ixtea.
- Aretoko argiak eta luminariak piztea eta itzaltzea.
- Aretoaren eta instalazioen zaintza eta oinarrizko mantentzea.
- Aretoaren instalazioen eta tresneriaren funtzionamendua behar bezain maiz kontrolatzea (mikrofonoak argiteriak soinu ekipoak, txarteldegia, aretozaintza.....)

Udalari dagozkio:

a). Eraikinaren eta instalazioen ohiko funtzionamendu gastuak ordaintzea, eta, era berean, mantentze arrunta, eraikinaren eta instalazioen mantentzea (horien narriadura ez bada gertatu espazioaren ohiko erabileragatik, baizik eta ekintza bandalikoengatik, pintadengatik eta abarregatik), egitura konponketak, eta ekipamendua, altzariak eta tresnak hobetzeko inbertsioak ere ordaintzea, Udalak bere aurrekontuan horretarako onartutako sailen bidez.

b).- Orobat, ur, argindar eta gas kontsumoak ordaintzea, eta garbiketa, igogailuaren mantentzea, lapurren eta suteen aurkako sistemak, klimatizazio sistema eta kontrol sistema ere bai.

Esleipendunari dagozkio:

- a). Aretoa egiten diren ekintza guztien arlo teknikoaz arduratuko da.
- b). Argiteria, soinua, mahaiak aulkiak, mikro....
- c). Hitzaldiak eta ikusi-entzutekoak, prentsurrekoak, politikako hitzaldiak....
- d) Kaleko ekintzetan behar den laguntza teknikoa (megafonia, argiteria....)

## **10.-HIZKUNTZA BETEBEHARRAK ZINE KOMERTZIALERAKO ETA ZINE KLUBERAKO, ETA BAITA ARKUPE KULTUR ETXEKO LAN TEKNIKORAKO:**

- **Hizkuntza gaitasuna:** Kontratutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, herritarrekin edo hirugarrenekin (musika edo antzerki talde, hizlari, herriko elkarte ...) harremana izango duten langile guztiek, Europako Erreferentzia Markoaren C1 mailaren (EGA) pareko ahozko gaitasuna egiaztatu beharko dute  
Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak gaitasun hori, eta horretarako bi bide erabili ahal izango ditu:
  1. Zerbitzua eman behar duten pertsonak eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea.
  2. Udalak erabakitako froga egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).
 Era berean, enpresa kontratatu eta geroago, zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.
- **Hizkuntza paisaia:** Errotulu, ohar eta hitz gutxitako komunikazio orokorrik jarri behar izanez gero, mezua euskaraz idatziko da, piktogramaz lagunduta. Piktogramak erabilia ere mezua behar bezain argia izango ez balitz, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez.

- **Hizkuntz erabilera herritarrekin eta hirugarrenekin:** Harrera eta erantzuna udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz egingo dira.
  - a. Horren arabera, lehen hitza euskaraz egingo da, baina kontuan izanda herritarrak edozein unetan erabil dezakeela hizkuntza aukeratzeko eskubidea.
  - b. Haurrei zuzendutako filmen %25 euskaraz izan beharko da, hau da, hilean behin, gutxienez, haurrentzako film bat euskaraz proiektatuko da.
  - c. Modu berean, era guztietako komunikazioak (film laburpenak, abisuak...) euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, betiere, bertsio egokiak eginez bi hizkuntzetan eta euskarazkoari lehentasuna emanez.
- **Hizkuntz erabilera administrazioarekin:** enpresak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, ...) euskaraz izango dira.

## PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

### PARA LA PROYECCIÓN DE PELÍCULAS COMERCIALES Y CINE CLUB EN LA SALA DE CINE ZARAIA DE ARETXABAETA Y LA PRESTACIÓN TÉCNICA, SOBRE TODO DE SONIDO, EN LAS ACTIVIDADES PROGRAMADAS EN LA CASA DE CULTURA ARKUPE

#### CLÁUSULA PRIMERA. Objeto y calificación del Contrato

El objeto del contrato es la proyección de películas comerciales y cine club en el cine Zaraia de Aretxabaeta y la prestación técnica, sobre todo de sonido, en las actividades programadas en la casa de cultura Arkupe.

El contrato definido tiene la calificación de contrato administrativo especial, tal y como establece el artículo 19.b) del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

#### CLÁUSULA SEGUNDA. Procedimiento de Selección y Adjudicación

La forma de adjudicación del contrato será el procedimiento abierto, en el que todo empresario interesado podrá presentar una proposición, quedando excluida toda negociación de los términos del contrato, acuerdo con el artículo 157 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

Para la valoración de las proposiciones y la determinación de la oferta económicamente más ventajosa se atenderá a varios criterios directamente vinculados al objeto del contrato, de conformidad con el artículo 150.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativos 3/2011, de 14 de noviembre, y con lo establecido en la cláusula novena del presente Pliego.

#### CLÁUSULA TERCERA. El Perfil de Contratante

Con el fin de asegurar la transparencia y el acceso público a la información relativa a su actividad contractual, y sin perjuicio de la utilización de otros medios de publicidad, este Ayuntamiento cuenta con el Perfil de Contratante al que se tendrá acceso según las especificaciones que se regulan en la página web siguiente: [www.aretxabaeta.eus](http://www.aretxabaeta.eus)

#### CLÁUSULA CUARTA. Importe del Contrato

El importe del presente contrato asciende a la cuantía de 181.500 euros, al que se adicionará el Impuesto sobre el Valor Añadido por valor de 35.115 euros, lo que supone un total de 218.615 euros.

El importe se abonará con cargo a la partida del vigente Presupuesto Municipal; existiendo crédito suficiente hasta el importe aprobado por el Ayuntamiento, quedando acreditada la plena disponibilidad de las aportaciones que permite financiar el contrato.

#### CLÁUSULA QUINTA. Formas de pago.

El contratista tendrá la obligación de presentar la factura por los servicios prestados ante el correspondiente registro administrativo a efectos de su remisión a la intervención municipal, órgano competente en materia de contabilidad pública. En la factura deberán figurar el órgano de contratación y el destinatario.

El abono se efectuara dentro de los plazos establecidos en el art. 216.4 y en la disposición transitoria sexta del TRLCSP al inicio de cada periodo de seguro.

#### CLÁUSULA SEXTA. Duración del Contrato

La duración del contrato será de tres años con efectos desde el 1 de febrero de 2017 hasta el 31 de enero de 2020.

#### CLÁUSULA SEPTIMA. Acreditación de la Aptitud para Contratar

Podrán presentar ofertas las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incurso en prohibiciones de contratar, y acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional.

1. La **capacidad de obrar** de los empresarios se acreditará:

a) La capacidad de obrar de los empresarios que fueren **personas jurídicas**, mediante la escritura o documento de constitución, los estatutos o el acto fundacional, en los que consten las normas por las que se regula su actividad, debidamente inscritos, en su caso, en el Registro público que corresponda, según el tipo de persona jurídica de que se trate.

